


**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO  
HEZKUNTZA SAILAREN IKASTETXEETAKO  
ELIKADURA-ZERBITZUEI DAGOZKIEN  
KONTRATAZIO-AGIRIEN IKERKETA  
KONPARATIBOA ETA HOBETZEKO  
PROPOSAMENAK**





Agitalpen hau "Aitortu – Ez Komertziala" lizentziarekin banatzen da. Hemen kontsultatu daiteke lizentzia hau: [http://creativecommons.org/choose/?lang=es\\_ES](http://creativecommons.org/choose/?lang=es_ES)  
Erreproduzitu daitezke edukiak baldin eta jatorria aipatzen bada eta helburu komertzialik ez badago.

Azaroak 2022

### Egileak:

Erosketa Publiko Berdea Ikerketa Taldea (UAH). 2022ko kontratazio-agirien azterketa. Mónica Giménez Baldazo eta Christians Alexander Aznaran Carmelino.

Mensa Cívica: 2015-2016 urteetako kontratazio-agirien azterketa eta kontratazio-agirien arteko alderaketa eta hobetzeko proposamenak. Paola Hernández Oliván eta Blanca Aguilar Catalán.

### Koordinatzaileak:

Bidezko Elikadura - Justicia Alimentaria eta EHIGE.



Argitalpen honek Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntza izan du. Argitalpenaren edukia Bidezko Elikadura – Justicia Alimentariaren eta EHIGE erantzunkizuna da, ez bestena, eta ez du islatzen, ezinbestean, ez Bizkaiko Foru Aldundiaren ez Eusko Jaurlaritzaren ustea.



NIF G-58429077 Justicia Alimentaria  
NIF V95246104 EHIGE Gurasoen Elkarte

# EDUKIA

I. KONTRATUAREN XEDEA	04
II. KONTRATUA SORTAKA ZATITZEA	06
III. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK	08
IV. EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK	12
V. LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO BERMEAK ETA KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA	14
VI. ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK	15
VII. ZIGORRAK ETA KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO KAUSAK	20
VIII. MENUAK ETA MENU ALDAKETAK	22
BIBLIOGRAFIA	23
GLOSARIOA	24

# KONTRATUEN ARTEKO KONPARAZIOA<sup>1</sup>

Dokumentu honetan 2015-2016 eta 2022 urteetako eskola-jangelen<sup>2</sup> kontratuak alderatuko ditugu, aurreko lizitazioarekin alderatuta zerbitzuan izandako hobekuntza baloratzeko.

## I. KONTRATUAREN XEDEA

### CO2/008/2016 eta CO2/010/2015 ESPEDIENTEAK

#### 2015:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren menpeko hainbat zentro publikoetako kudeaketa zuzeneko eskola-jantokietan janariak prestatzea, lehengaiak eskuratzea, garraiatzea eta jantokien funtzionamendurako prestazio osagarriak egitea.


#### 2016 (2015eko 10. sortari dagokio):

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren menpeko hainbat zentro publikoetako kudeaketa zuzeneko eskola-jantokietan janariak prestatzea, lehengaiak eskuratzea, garraiatzea eta jantokien funtzionamendurako prestazio osagarriak egitea.

#### 2022:

Hurrenez hurren, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Hezkuntza Sailaren menpeko hainbat ikastetxe publikoetako kudeaketa zuzeneko eta janariak *in situ* prestatzeko modalitateko eskola-jantokietako janarien prestakuntza, elikadura-produktuen eta lehengaien hornikuntza eta jantokiaren funtzionamendurako prestazio osagarriak, oinarri teknikoen agiriak ezartzen dituen terminoen arabera. (2022an argitaratutako zortzi lizitazio-agirietatik hirutan).

Hurrenez hurren, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lurralde Historikoetako Hezkuntza Sailaren menpeko hainbat ikastetxe publikoetako kudeaketa zuzeneko eskola-jantokietako janarien prestakuntza, garraiatzea eta banaketa; elikadura-produktuen eta lehengaien hornikuntza eta jantokiaren funtzionamendurako prestazio osagarriak, oinarri teknikoen agiriak ezartzen dituen terminoen arabera. (2022an argitaratutako zortzi lizitazio-agirietatik bostetan).



Kontratuaren xedea gizarte- edo ingurumen-ikuspegi batetik artikulatzeak irizpide horiek txertatzera derrigortuko luke. Beraz, hori izango litzateke kontratu horiek artikulatzeko modurik onena, erosketa publiko estrategikoa helburu duen kontratu bat nahi badugu.

2015eko, 2016ko eta 2022ko kontratuen izenburuan edo horien xedearen definizioan ez da jasagarritasuna berariaz aipatzen. Zentzu horretan, gure ustez, ez dute funtsezkotzat jotzen ingurumen- edo gizarte-irizpideak txertatzea eta, hortaz, ez dute kontratua ildo horretatik bideratu.

<sup>1</sup>2016-2022 urteetako ikerketa konparatibo hau egiteko, Alcaláko Unibertsitateko Erosketa Publiko Berdea Ikerketa Taldeak 2022ko kontratazio-agiriak aztertu ditu.

<sup>2</sup>Proposamenetan jangela hitza hobetsiko dugu jantokiaren orde, eremu horren izaera hezigarria aldarrikatzeko helburuz.

## HOBETZEKO PROPOSAMENA

Kontratuaren xedeak kontratu osoaren ikuspegia zehaztuko du eta kalitate-, jasangarritasun- edo gizarte-irizpide espezifikoak sartu beharra dagoen ezarriko du. Hortaz, ikuspegi hura kontratuaren xedean sartzea gomendatzen dugu beti, horrelako irizpideak izango direla bermatzeko.

2017ko Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 99. artikulua kontratuaren xedea gizarte- edo ingurumen-irizpideak kontuan hartuta zehazteko aukera ematen du:

1. Sektore publikoko kontratuen objektuak zehatza izan behar du. Objektu hori bete nahi diren beharrian edo funtzionaltasun zehatzei erreparatuta definitu ahalko da, kontratuaren objektua konponbide bakar batera mugatu gabe. Bereziki, kontratatzen diren ondasun, obra edo zerbitzuen efizientzia eta jasangarritasuna hobetzen duten berrikuntza teknologiko, sozial edo ingurumenekoak sar daitezkeela uste den kontratuetan definituko da modu horretan.

Hona hemen kontratuaren xedea ikuspegi horren arabera zehazteko adibide bat:

Arabako Lurralde Historikoko Hezkuntza Sailaren menpeko hainbat ikastetxe publikoetako kudeaketa zuzeneko eta janariak *in situ* prestatzeko modalitateko eskola-jangeletako janarien prestakuntza, elikadura-produktuen eta lehengaien hornikuntza eta jantokiaren funtzionamendurako prestazio osagarriak, oinarri teknikoen agiriak ezartzen dituen terminoen arabera:

- > Elikadura osasungarriko eta jasangarriko irizpideekin.
- > Gizarte- eta ingurumen-irizpideekin.

## II. KONTRATUA SORTAKA ZATITZEA

### 2015-2016:


2015eko kontratua 18 sortatan zatitzen da, sorta bakoitza ikastetxe bati dagokiolarik. Hala ere, sorta guztiak handiak dira. 2016ko kontratua ez da sortatan zatitzen, 2014ko Kontratazio direktibaren zenbait xedapen indarrean dauden arren -horien artean kontratua sortaka zatitzera behartzen duena, hain zuzen ere-. Hala ere, kontratua sortatan zergatik ez den zatitzen justifikatzen duen txostena dago.

### 2022:

Kontratu guztiak sortatan zatituta daude. Kontratuaren zatiketa eremu geografikoaren arabera egiten da kasu guztietan.

Lizitazio-agiri bakoitzean agertzen diren sorta kopurua:

- > 3 sorta (2022an argitaratutako zortzi kontratazio-agirietako bitan).
- > 6 sorta (2022an argitaratutako zortzi kontratazio-agirietako bitan).
- > 8 sorta (2022an argitaratutako zortzi kontratazio-agirietako hirutan).
- > 9 sorta (2022an argitaratutako zortzi kontratazio-agirietako batean).



Ikusten dugunez, bai 2015an eta bai 2022an, kontratua sorta txikiagotan zatitzen da; izan ere, sektore publikoko kontratuen legea indarrean dago urte bi horietan. Sortatan zatitzea positiboa da enpresa txiki eta ertainentzat, lizitazioan sartzeko aukera ematen baitie. Nolanahi ere, sortaren bat izaera sozialeko enplegu zentro berezientzat gorde zitekeen.

### HOBETZEKO PROPOSAMENA

EBren Kontratazio Publikoko Direktibak (2014/24/EB) (46.artikulua) kontratuak sortatan zatitzea sustatzen du eta arduradun publikoei justifikazio bat emateko exijitzen die hala egiten ez dutenean. Sortak erabiltzeak, Kontratazio Publiko Sozialki Arduratsuko (KPSA) parte gisa, eragile txikiek edo gizarte arloko enpresek parte har dezaten berma dezake; izan ere, horiek, agian, ez dituzte kontratu handi baten alderdi guztiak bete ahal izango. Sortakako banaketa honela egin daiteke:

1. **Egoera ahulean dauden pertsonak kontratatzen dituzten ekoizleentzat kontratuak edo sortak gordez:** Adjudikatzailerik kontratu bat edo kontratu baten zenbait sorta gorde ditzakete gutxienez langileen % 30 egoera ahulean dauden pertsonak dituzten lizitatzailerentzat (adibidez, elikagaien ekoizpenean, eraldaketan, banaketan, sukaldaritza-zerbitzuetan, eta abar), 2014/24/EB Direktibaren 20. artikulua ezartzen duen bezala. Horrek gizarte-enpresek eta merkataritzakoak ez diren erakundeek kontratazio publikoan parte har dezaten lagun dezake. *Guía de Compra Social* gidak (bigarren edizioa, 2021) erreserba hori erabiltzeko informazio gehiago eta hura Frantziako eskoletan nola aplikatu den erakusten duen adibidea eskaintzen ditu.

**2. Kontratu zuzenak esleituz:** Kontratuak sorta txikietan banatzea errazagoa da botere adjudikatzailerak zuzenean erosten badu, kontratua handizkari edo bitartekari bati eman beharrean. Botere adjudikatzailerak sukaldea zuzenean kudeatzen badu, sukaldaritza-zerbitzuak azpikontratatu beharrean, aukerarik onena izan daiteke kontratu zuzen desberdinak izatea, nekazaritzako produktu bakoitzeko. Tokiko elikadura-tradizioekin bat datozen sasoiko elikagaiak aukeratzeak eta bioaniztasuna zaintzeak (adibidez, sagar-mota desberdinak) hornikuntza-kate laburrak are gehiago sustatzen lagun dezakete.

### III. ESLEIPEN-IRIZPIDEAK

#### 2015-2016:

Prezioak 60 puntu, zerbitzuan jartzeko antolakuntza-sistemak 40 puntu.

Baldintza Administratibo Berezien Agiriaren (BABA) karatulan eskaintzak baloratzeko irizpideak aurki ditzakegu. Horien artean bi irizpide nagusi ditugu<sup>3</sup>: prezioa, % 60ko garrantziarekin, eta zerbitzuan jartzeko antolakuntza-sistema % 40ko garrantziarekin.

Bigarren irizpide hau balio-iritziaren araberkoa da. Hala, memoria baten bitartez zerbitzu osoa nola garatuko den adierazi behar da, menuak osatuz eta lehengaien fitxa teknikoak egitetik garraiatzera, biltegiarazera eta hondakinen kudeaketara, puntuak honela emanaz 49ra heldu arte:

- > Menuak: 3 puntu.
- > Fitxa teknikoak: 6 puntu.
- > Lehengaien espezifikazio teknikoak: 6 puntu.
- > Lehengaiak sukalde nagusian eta eskola jantokietan banatzea eta jasotzea: 6 puntu.
- > Janaria prestatzeko prozesuak, azpiprozesuak barne: 13 puntu.
- > Sukalde nagusiko menua eta menu garraiatua kargatzea eta banatzea: 3 puntu.

Ez dago ingurumen-, kalitate- edo nutrizio-dimentsioarekin lotutako esleipen-irizpiderik. Zerbitzua martxan jartzeko irizpideak ez du inola ere bermatzen zerbitzua aurkeztu beharreko eremuan ageri den bezala garatuko denik. Halaber, espezifikazio teknikoetan elikagaien kalitateari eta jasangarritasunari buruzko irizpiderik ez dagoenez, ezin da pentsatu irizpide horren eta zerbitzuaren kalitatearen artean inolako lotura dagoenik.

#### 2022:

2022an argitaratutako zortzi kontratazio-agirietan "prezioa + beste irizpide batzuk" eskema jarraitzen dute, prezioari 38 puntu emanaz. Ingurumen-irizpideek 52 puntu dituzte agiri horietako bostetan eta 62 gainontzeko hiruretan.

Esleipen-irizpideak ikuspegi objektibo baten arabera idatzi dituzte, formulen bitartez, eta modu automatikoan aplikatzen dira kasu guztietan. Hala honako hauek hartzen dituzte, hurrenez hurren: etiketa ekologikoak, bidezko merkataritzako produktuak, gertuko hornitzaileak eta ibilgailu jasangarrien erabilera.

Ingurumen-irizpideei emandako garrantzia lizitazio-agiria idazten duen legegilearen esku dago. Hala, legegileak irizpide bati garrantzi handiagoa ematen dionean, enpresa esleipendunak irizpide hori betetzeko aukera gehiago daude.

- > **"Etiketa Ekologikoak" esleipen-irizpidea:** zortzi agirietan gehieneko balio desberdinekin agertzen da.
  - Europako Etiketa Ekologikoa edo baliokideak (1. mota): 1,5 puntu enpresa lizitatuak asteko menuan sartuko duen produktu bakoitzeko:
    - Gehienez 18 puntu (5 agiri, ERREF: C02/003/2022; C02/004/2022; C02/005/2022; C02/016/2022 eta C02/017/2022).
    - Gehienez 24 puntu (3 agiri, ERREF: C02/007/2021, C02/011/2021 eta C02/012/2021).
  - Produktu horiek sartzeko konpromisoa kontratuak iraun bitartean mantendu beharko dute. Botere adjudikatzaileak fakturen kopia eska dezake edozein momentutan konpromisoa betetzen ari direla egiaztatzeko.

<sup>3</sup>Karatularen 17. orrialdean.



- > **“Bidezko merkataritza” esleipen-irizpidea:** zortzi agirietan gehienezko balio bera du edo Fairtrade (Bidezko Merkataritza), IFAT edo antzeko ziurtagiriak: 2 puntu enpresa lizitatzailerak asteko menuan sartuko duen produktu bakoitzeko, gehienez 4 puntu sorta bakoitzeko.
  - Produktu horiek sartzeko konpromisoa kontratuak iraun bitartean mantendu beharko dute. Botere adjudikatzaileak fakturen kopia eska dezake edozein momentutan konpromisoa betetzen ari direla egiaztatzeko.
  
- > **“Kalitate ziurtagiriak” esleipen-irizpidea:** zortzi agirietan gehienezko balio desberdinekin agertzen da edo Kalitate Ziurtagiriak, Eusko Label, Euskal Baserri, Jatorri Izendapen Babestua, Adierazpen Geografiko Babestua, Espezialitate Tradizional Bermatuak edo ziurtagiri baliokideak: 2 puntu enpresa lizitatzailerak asteko menuan sartuko duen produktu bakoitzeko.
  - Gehienez 20 puntu sorta bakoitzeko (bost agiritan).
  - Gehienez 24 puntu sorta bakoitzeko (hiru agiritan).
  - Produktu horiek sartzeko konpromisoa kontratuak iraun bitartean mantendu beharko dute. Botere adjudikatzaileak fakturen kopia eska dezake edozein momentutan konpromisoa betetzen ari direla egiaztatzeko.
  
- > **“Garraiatzeko ibilgailuak” esleipen-irizpidea:** hiru agiritan agertzen da eduki berarekin.
  - Sorta bakoitzeko produktuak ikastetxera eramateko erabiltzen diren ibilgailuei dagokie: gehienez 10 puntu.
 

Puntu honetan, ibilgailuen ingurumen-kalitatea baloratuko da, DGT Espainiako Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren sailkapenaren arabera ezarritako ingurumen-bereizgarria erabiliz. Sailkapenak 4 kategoria ezartzen ditu -Zero, Eco, C eta B- eta horiek jasotzeko baldintzak betetzen ez dituzten ibilgailuak bereizgarririk gabe uzten ditu.

Ibilgailuen ingurumen-bereizgarria internet bidez kontsultatzeko: <https://sede.dgt.gob.es/es/vehiculos/distintivo-ambiental/>.

Bakarrik onartuko dituzte aipatutako ingurumen-bereizgarri horiek eta ez dira onartatzen hartuko DGTren sailkapena eta bereizgarria aipatzen ez dituzten horiek.

Balorazioa honela egingo dute:

    - Sorta bakoitzean erabiliko den Zero bereizgarriaren ibilgailu bakoitzagatik: 5 puntu, gehienez 10 puntu.
    - Sorta bakoitzean erabiliko den Eco (berdea/urdina) bereizgarriaren ibilgailu bakoitzagatik: 2 puntu, gehienez 6 puntu.
    - Sorta bakoitzean erabiliko den C (berdea) bereizgarriaren ibilgailu bakoitzagatik: 0,5 puntu, gehienez 2 puntu.
    - Sorta bakoitzean erabiliko den B (horia) bereizgarriaren ibilgailu bakoitzagatik: 0,25 puntu, gehienez puntu bat.
    - Sorta bakoitzean erabiliko den bereizgarririk gabeko ibilgailu bakoitzagatik: 0 puntu.
  - Ibilgailu horiek sartzeko konpromisoa kontratuak iraun bitartean mantendu beharko dute. Botere adjudikatzailea ikastetxeetara joan daiteke konpromisoa betetzen ari direla egiaztatzeko.

> **“Eskualdeko hornitzaileak” esleipen-irizpidea:** bost agiritan agertzen da gehienezko balio berarekin:

- Eskualdeko hornitzaileen plana: gehienez 10 puntu.

Lizitatuzaileek hornitzaileen zerrenda zehatza aurkeztu beharko dute Preskripzio Teknikoen Agirian (2. eranskina) aipatzen diren elikagai-sorta bakoitzarentzat, eta horien kokalekua adierazi beharko dute. Halaber, kontratuak iraun bitartean zerrenda hori errespetatzeko konpromisoa hartu beharko dute. Botere adjudikatuzaileak fakturen kopia eska dezake edozein momentutan, konpromisoa betetzen ari direla egiaztatzeko. Salbuespen gisa eta ezinbestekoa hala eskatzen duenean, adibidez, hornitzaileak jarduera utziko balu, Administrazioak zerrendan aldaketak egitea baimendu dezake.


Elikagai sorta bakoitzeko hornitzaile puntuagarri bakarra hartuko da kontuan.

Puntu bat emango dute Euskal Autonomia Erkidegoan edo ikastetxetik 100 km-ko erradioan establezimendu iraunkorra duen hornitzaile bakoitzeko, eta bi puntu lizitatzen diren sortak dauden eskualdean bertan establezimendu iraunkorra duen hornitzaile bakoitzeko. Gehienez 10 puntu emango dituzte horregatik. Establezimendu iraunkorra da hornitzaileak hornituko dituen elikagaien jatorrizko unitatea edo egoitza.

Hemen garrantzi handiagoa eman diote ingurumen-dimentsioari, enpresaren eskuetan zer eta zenbat eskaintzen duen uzteak dakarren guztiarekin.

Irizpide guztiek lizitazio-fasean egiaztatzeko metodoaren argibidea ematen dute. Hala ere, hura ez da oso zehatza eta ez du argi adierazten nork (“botere adjudikatuzailea”) eta noiz edo zer maiztasunez egingo duen egiaztapen hura (“edozein unetan”).

“Etiketa ekologikoak” eta “kalitate ziurtagiriak” etiketak nahasgarriak izan daitezke; izan ere, Eusko Label bezalako “kalitate ziurtagiri” batzuk Ecolabel ziurtagiri ekologikoaren antzeko gisa ikus daitezke.



Esleipen-irizpideetan hobekuntza nabarmena izan da kalitate-prezio harremanari dagokionez; izan ere, ez du ekonomikoki onuragarriena den eskaintza lehenesten kontratuen esleipen-irizpide nagusi gisa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 145. artikulua jasotzen duen bezala. Bereziki interesgarria da ingurumen-irizpideak sartu izana, hala nola ekoizpen ekologikoko produktuak, tokiko hornitzaileak eta bidezko merkataritza. Hala ere, kontuan hartuta enpresaren eskuetan uzten dutela zer eta zenbat eskaintzen duen, egiaztatze-metodoak zehaztasun eskasa duela eta etiketa ekologikoen inguruan nahasmena dagoela, irizpide horien formulazioa hobeto daiteke.

## HOBETZEKO PROPOSAMENA

Elikadura ekologikoko, bidezko merkataritzako eta gertutasuneko irizpideak espezifikazio teknikoetan artikulatu beharko lirateke, nahitaezko indarra emateko. Edo jarraipen eta ebaluazio sistemaren bat artikulatu beharko litzateke, eskaintzan adierazitakoa eta esleipen-irizpideetan zehaztutakoa betetzera behartzeko, konpromisoak ez betetzea zigortuz.

EBko Elikadura Politikaren Koalizioaren esparruan egindako [idatzi honetan](#)<sup>4</sup> derrigorrezko zazpi irizpide (gutxienekoak) aurkezten dituzte jangela publikoentzat. Horien artean aurkitzen ditugu elikagai (agro)ekologikoak, bidezko merkataritza, animalien ongizatea eta baserriar txikiak babestea. Idatziak kontratazio-agirietan sar daitezkeen zenbait irizpide aurkezten ditu eta horiek egiaztatzeko sistema eta horiek lortzeko jarraibideak eskaintzen ditu.

Hala, ekoizpen ekologikoko produktuak sustatzeko irizpideak txertatu beharrean sakonduz, honako hauek sar ditzakegu espezifikazio teknikoetan:

- > Kontratuaren esparruan hornitutako elikagai eta edari guztien % x gutxienez *[masa/bolumena eta/edo balioa, botere adjudikatzailleak zehaztu beharko du]* ziurtatutako iturri ekologikoetatik (2018/848 Erregelamenduaren (EE) arabera) edo arau ekologikoetara egokitzeko prozesuan dauden iturrietatik (ekoizpen integratua) etortzea.
- > Honako elikagai eta edari hauek *[zerrenda kontratazio-organoak zehaztu beharko du eta kontratuaren esparruan hornitutako elikagaien eta edarien masaren/bolumenaren eta/edo balioaren % x izatea espero da]* ziurtatutako iturri ekologikoetatik eta arau ekologikoetara egokitzeko prozesuan dauden iturrietatik (ekoizpen integratua) etorri behar dute. Kontratistak ezarritako osagaietako baten kasuan ziurtatutako produktu ekologikorik ez badago, *[masa/bolumen eta/edo balio]* berdineko produktu alternatibo bat proposatzeko aukera egongo da eta hura ziurtagiri ekologikoarekin hornituko da, kontratistak produktua onartzen badu. Egokitzen hartuko dira EBren ziurtagiri ekologikoa (hosto berdea) edo haren baliokidea duten produktu horiek. Egokitzen har daitezke arau ekologikoetara egokitzeko prozesuan dauden ustategien/instalazioen produktuak ere, horiek ekoizpen ekologikoa epe jakin batean lortzeko plan bat dutela frogatzen badute. Epe hori, betiere, kontratuaren iraupena baino txikiagoa izan beharko da.

Komeni da ekoizpen ekologikoko elikagaien gutxieneko ehuneko edo zerrenda txikia izatea hasieran eta ikasturtez ikasturte handitzea. Derrigorrezko gutxieneko horrez gain, beste esleipen-irizpide batzuk ere sar daitezke, elikagai-talde bakoitzeko ekoizpen ekologikoko elikagaien ehuneko handitzea positiboki baloratuko dutenak, edo plateretako baten (lehenengo, bigarrena, postrea) osagai nagusia ekologikoa izatea egun gehiagotan.

Bereziki garrantzitsua da arrantza iraunkorreko eta abeltzaintza estentsiboko produktuen alde eragitea, baita arrautza ekologikoen alde ere. Azken horiei dagokienez, espezifikazio teknikoetan sar daiteke kontratuaren esparruan hornitutako arrautzak 3 kodekoak ez izatea ("kaiolatutako oiloen arrautzak"), 589/2008 Erregelamenduaren (EE) arabera. Halaber, esleipen-irizpide bat izan daiteke hornitutako arrautzen % 100ek 0 kodea duenean (hau da ekologikoak direnean) edo 1 kodea duenean (hau da, landako oiloak edo zoruan hazitakoak) *[X]* puntu ematea, 589/2008 Erregelamenduaren (EE) arabera.

<sup>4</sup>[https://buybetterfood.eu/sites/default/files/media/images/documents/Manifest\\_Spanish.PDF](https://buybetterfood.eu/sites/default/files/media/images/documents/Manifest_Spanish.PDF)

## IV. EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIAK

### 2015-2016:

Kontratuak egikaritzeko hainbat baldintza bereizten ditu, esaterako, honako hauek:

- > Hizkuntza-motako egikaritzeko baldintza bereziak (33.1).
- > Gizarteratzera eta lan-merkatuan sartzera zuzendutako egikaritzeko baldintza bereziak (33.2).
- > Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagozkion egikaritzeko baldintza bereziak (33.3).
- > Lan-kalitateari eta oinarriko lan-eskubideei dagozkien egikaritzeko baldintza bereziak (33.4).
- > Laneko segurtasunerako eta osasunerako baldintza bereziak (33.5).
- > Enpresa kontratistaren gutxieneko lan baldintzei eta subrogazioari dagozkien egikaritzeko baldintza bereziak (33.6).

Ikusten dugunez, egikaritzeko baldintza berezi guztiak gizarte motakoak dira, ez dago ingurumen arloko egikaritzeko baldintza berezirik, ezta kalitateari edo nutrizioari lotutakorik ere.

Ez dira funtsezko obligazioak kasu guztietan, izan ere, batzuk ez omen daude zigortuta ere.

### 2022:

Aurreko egikaritzeko baldintza bereziez gain, kasu honetan, kontratuko funtsezko obligazioen artean ingurumen-arloko batzuk sartu dira. Kasu guztietan, honako hauek dira kontratuaren funtsezko obligazioak:

- > Enpresa kontratistak jantoki zerbitzurako aurkeztutako ingurumen-kudeaketako sistema edo ingurumen-kalitateko beste berme batzuk indarrean mantendu beharko ditu kontratuaren iraupen osoan zehar, eta preskripzio teknikoen agiriaren 8. atalean ("Ingurumen Kudeaketa") deskribatutako ingurumen-kudeaketako obligazio guztiak bete beharko ditu (hiru agiritan agertzen da).
- > Kontratista kontratuan zehar sortutako hondakinen gaikako bilketa egitera behartuta dago. Bilgarriak eta ontziak bereizi beharko ditu, dagokien ontzian sartzeko edo, beharrezkoa denean, garbigunera edo hondakinak kudeatzeko onartutako beste sistema batera eramateko (hiru agiritan agertzen da).

Egikaritzeko baldintza berezi hauen agiriak hiru kontzeptu oso desberdin hauek nahasten ditu:


- > EMAS edo ISO 14001 bezalako ingurumen-kudeaketako sistemen bitartez ziurtatutako enpresaren ingurumen-kudeaketako neurriak. Horiek ENACen aurrean gaitutako ingurumen-egiaztazaile batek emandako irismen eta indarraldiarekin eragiten dio korporazioari edo enpresari (ez zaizkie ingurumen-kaudimen tekniko gisa eskatu enpresa lizitatzailerei).
- > Lizitatzailiak lizitazio-fasean eskaintza gisa aurkeztutako ingurumen-kudeaketako sistema edo beste kalitate-berme batzuk. Horiek ez dira esleipen-irizpidetzat hartzen (ez zaizkie ingurumen-kaudimen tekniko gisa eskatu enpresa lizitatzailerei<sup>5</sup>).

<sup>5</sup>Ingurumen ziurtagiri bat eskatzen ari dira egikaritzeko baldintza berezi gisa. Maiz, baldintza horiek lizitazioaren kaudimen teknikoko atalean aurkitzen dira. Kontuan hartu beharra dago ez dela gauza bera ingurumen-baldintzak atal batean edo bestean eskatzea; izan ere, horiek non eskatzen diren, enpresak bete beharreko baldintzak izan daitezke ala soilik meritu gehigarriak, kontuan hartzekoak baina bete behar ez direnak.

- > Eta, bestetik, Preskripzio Teknikoen Agiriaren 8. atalean bete beharreko espezifikazio tekniko gisa adierazitako ingurumen-kudeaketako neurrien sorta.

Zehaztutako funtsezko obligazioetako bigarrena ez dator bat hondakinen lege berriarekin eta ez du elikagaiak alferrik galtzearen kudeaketa aurreikusten. Lege hura, seguruenik, 2023ko bigarren seihilekoan sartuko da indarrean.

Positiboa da agiriak ingurumen-kalitateko egikaritzeko baldintza bereziak hartzen dituela, batez ere hondakinen bilketari dagokionez, baina baldintza horiek hobe daitezke. Nolanahi ere, ez dira gizarte-arloko ardurak gutxietsi behar.



## HOBETZEKO PROPOSAMENA

Ingurumen-kudeaketako sistema bat betetzeaz harago doazen egikaritzeko baldintza bereziak artikulatu beharko lirateke, sistema hura ez baitago ondo zehaztuta baldintza teknikoetan. Halaber, elikagaiak alferrik galtzearen inguruan irizpide zorrotzagoak artikulatu beharko lirateke, izan ere laster onartuko omen da Elikagaiak Alferrik Galtzea Prebenitzeko Legea<sup>6</sup>. Zentzu horretan, kontratistak txostenak aurkeztu beharko ditu aldizka [zehaztu: astero, hilero, etab.] kontratuaren esparruan sortutako hondakinen kantitateari eta ezaugarriei eta soberakinen birbanaketari buruz. Gainera, elikagaiak alferrik ez galtzeko hartutako neurri espezifikokoak dokumentatu beharko ditu, baita neurri horien eragina ere.

Gizarte-dimentsioarekin lotutako irizpideei dagokienez, aipatu beharko litzateke gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, enpresa lizitatzailleek lan-eremuan tratu eta aukera berdintasunarekin duten konpromisoan aurrera egiteko; eta gizonen eta emakumeen arteko edozein lan-diskriminazioa ekiditeko neurriak har ditzaten, baita sexu-jazarpeneko edo sexuagatiko jazarpeneko egoerak ekiditeko ere. Halaber, ez dira honako hauek alde batera utzi behar: desgaitasunen bat duten edo gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonak kontratatzea, emakumeak edo gazteak kontratatzea eta erabakitzekeko eremuetan sartzea; ekonomia sozial eta solidarioko eta bidezko merkataritzako enpresen produktuak erabiltzea eta enpresak bateragarritasun planak izatea.

<sup>6</sup><https://www.lamoncloa.gob.es/consejodeministros/resumenes/paginas/2022/070622-rp-cministros.aspx>

## V. LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO BERMEAK ETA KAUDIMEN EKONOMIKOA ETA TEKNIKOA

### 2015-2016:


2015eko kontratuari dagokionez, hura sortatan banatzen da. Hala ere, sorta bakoitzak zenbateko handia du eta, hortaz, % 5eko bermea ere zenbateko handia da horietako zenbaitetan. 2016ko kasuan ere, kontratuaren balioaren % 5eko behin betiko bermea ezartzen da, hau da, 400.000,00 € ingurukoa. Zenbateko hura oso altua da eta, hortaz, gure ustez, enpresa txiki eta ertainek ez dute kontratazioa lortzeko aukerarik.

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioari dagokionez, ikusten dugunez, negozio-bolumen jakin bat eskatzen dute kontratuaren aurreko hiru urteetan. Bolumen hura eskaintza aurkeztuko diren sorten aurrekontuaren baturaren % 50 edo gehiago izan behar da.

### 2022:

Kontratuak sortatan banatzen dira; hortaz, bermea sorta bakoitzeko eman behar da, eta hori positiboa da, enpresa txikiagoei lizitazio horietan parte hartzeko aukera ematen dielako.

Sortakako banaketak eta kontratuen banaketak ahalbidetzen du bermeak txikiagoak izatea eta, hortaz, enpresa txikiagoek lizitazioan parte hartu ahal izatea. Positibotzat jotzen dugu hori eta aurrerapena da aurreko agiriekin alderatuta. Hala ere, mugatzaileak izan daitezkeen kaudimen finantzarioko zenbait baldintza eskatzen dituzte.



### HOBETZEKO PROPOSAMENA

Ingurumen-dimentsioari dagozkion kaudimen teknikoko baldintzak artikulatu beharko lirateke, baita ingurumen-baliabideak atxiki ere.

## VI. ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK

### 2016:

Nutrizio alderdiei dagokienez, ikastetxe publikoen nutrizio-politika osatuko duten alderdiak zehatuko ditu agiri honek.

Faltan botatzen da menuen ikuskapena giza-nutrizioan eta dietetikan trebatutako profesionalak egingo dutela ezartzea, uztailaren 5eko elikadura segurtasunari eta nutrizioari buruzko 17/2011 Legearen 40.3 artikulua ezartzen duen bezala.

Hala ere, kontratuak zehazten du dieta bereziak dituzten bazkaltiarren familiei, tutoreei edo arduradunei informazioa hiru hilez behin emango zaiela eta hiruhilekoa hasi aurreko astean izango dela. 2017ko azaroan egindako gogobetetze galdetegiek<sup>7</sup> adierazten dute kudeaketa zuzeneko familien % 75 pozik dagoela menuari buruzko informazioarekin; nagusi den kudeaketa-eredua duten familien artean, ordea, % 70ek soilik. Nolanahi ere, ez dago zehaztuta bazkariaren osagarri izan daitezkeen afariei buruzko jarraibiderik eman behar duten, uztailaren 5eko elikadura segurtasunari eta nutrizioari buruzko 17/2011 Legearen 40.4 artikulua zehazten duen bezala.

Hirugarren eranskinaren parte gisa zehazten da osasun arazoak direla-eta (alergiak, intolerantziak edo beste gaixotasun batzuk) menu bereziak eskainiko direla, baita arrazoi kultural, etiko edo erlijiosoengatik ere, hala nola txerrikirik gabeko menua edo menu obolaktobegetarianoa.

Halaber, familiek, tutoreek edo ikasleen arduradunek prestatutako menu bereziak kontserbatzeko eta berotzeko baliabide espezifikokoak daudela zehazten da, betiere antolakuntza baldintzek, edo instalazioek eta sukaldeek menu bereziak prestatzeko exijitzen diren bermeak betetzeko aukera ez dutenean edo menu horiek prestatzeko kostu gehigarria onartezina denean.

Elikagai-talde desberdinen maiztasunei dagokienez, horiek astean (5 egun) edo hilean gomendatutako errazioekin bat datoz. Honako hauek dira salbuespen bakarrak: arroza eta pasta, bi kategoriatan bereiz daitezkeenak eta astean errazio bakarra ezarri; eta jogurta, postre bezala, zeinaren kasuan astean 0-1 errazio gomendatzen diren, biren ordez.

<sup>7</sup>EHIGE 2017an egindako inkestak. <https://www.gureplateragureaukera.eus/wp-content/uploads/2020/09/Jantokien-inkestaren-emaizak-conclusiones-encuesta-comedores-ES-2.pdf>

	<b>Elikagaien taldea (osagai nagusi gisa)</b>	<b>Gutxienezko maiztasuna</b>	<b>Gehienezko maiztasuna</b>
<b>Lehen platerak</b>	Barazkiak (patatekin eta patatarik gabe)	1 astean 6 hilean	
	Arroza eta pasta	1 astean	
	Lekaleak (barazki edo patatekin)	1 astean 6 hilean	
<b>Bigarren platerak</b>	Haragiak	2 astean	
	Tratamendu mistorik gabeko haragi-deribatuak		2 hilean
	Arrainak	1 astean 6 hilean	
	Arrautzak		1 astean
	Haragi-deribatu pasteurizatuak		1 hilean
	Aurrez prestatuak		2 hilean
	Arrautzaztatuak		2 astean
	Frijituak		2 astean
<b>Postrea</b>	Fruta freskoa	3 astean	
	Fruta kontserbak		1 hilean
	Esnezko postreak	2 astean	2 astean
<b>Hornigaiak</b>	Barazki gordinak	1 astean	
	Barazki egosiak		
	Patata frijituak/chips		1 astean
	Arroza/pasta		2 hilean
	Maionesa		2 hilean
	Tomate frijitua / tomate saltsa		2 astean

Preskripzio teknikoen agirian, frijitzeko, kozinatzeko eta ontzeko erabiltzen den olio mota ere zehazten da, eta hura onartutakoarekin bat dator. Halaber, gatz iodatuaren, eta kontzentratuen eta zapore-indartzaileen erabilera ere mugatzen da, haurrek hartu beharreko sodio kantitateari buruz OMEk egiten dituen gomendioei jarraituz; baita zereal integralen eskaintza eta sasoiko produktuen erosketa ere.

Hala ere, agiriak ez du aipatzen ura edari bakarria izan behar denik eta nola eskaini behar den (ur pitxerrak edo botilak), eta, hala ez denean, zer beste edari mota ematen diren. Halaber, ez du aipatzen menuak prestatzeko elikagai ekologikorik eta/edo gertuko elikagairik erabili behar dituzten.



**2022:**

Agiri guztietan agertzen dira, ordena aldatzen da baina edukia berdina da:

Lehengaiei dagokienez:

Sasoiko fruta erabiliko da, ikus 4. eranskineko Sasoiko Produktuen taula. Erabilitako kategoriak kalitate estra eta bikaina dira. Fruta freskoa lehenetsiko da (asteen lau errazio) beste prestakin batzuen aurrean (adibidez, fruta kontserban). Azken horiek hilean behin eskainiko dira asko jota eta inoiz ez fruta freskoaren orde. Hilean lau errazio fruta fresko ezartzen dira gutxienez; beti sasoiko fruta.

Menuak programatzean kontuan hartu beharko dituzte sasoiz sasoiko aldaketak eta, hortaz, menuak sasoiko produktuen arabera moldatu beharko dituzte, Sasoiko Produktuen Taula (4. eranskina) oinarri hartuta.

Kontratatik oinarriko menuaren programazioan animalia-proteinarik gabeko menua izateko aukera sartuko du hilean behin, landare-proteinen kontsumoa sustatzeko. Menua landare-proteinan oinarritu beharko da: lekaleak, zerealak, tuberkuluak, barazkiak eta fruituak.

4. eranskinak sasoiko produktuen zerrenda eskaintzen du, horietako asko tokikoak ere direlarik, eta horiek zer hilabetetan eskura daitezkeen zehazten du. Ez dirudi eskola-jantokien kasu honetarako berriaz egindako taula denik; izan ere, oinarriko produktu batzuk falta dira eta honelako menuetan egon ohi ez diren beste batzuk agertzen dira.

Prestakuntzari dagokionez<sup>8</sup>:

Prestakuntza-planek, gutxienez, honako eremu hauek landuko dituzte:

- > Ikasleei arreta ematea eta zaintzea.
- > Higienea eta elikadura-segurtasuna, batez ere elikadura-alertako sistemak.
- > Maniuko Praktika Onak, Garbiketa eta Desinfekzio Plana.
- > Elikadura osasungarria.
- > Enpresaren ingurumen-plana, batez ere ikastetxeko hondakinen kudeaketari dagokionez.
- > Hizkuntza gaikuntza, egikaritzeko baldintza berezietan ezarritakoaren arabera.
- > Laneko arriskuak prebenitzera bideratutako langileen segurtasuna eta osasuna.
- > Beren eginkizunekin lotutako beste edozein alderdi.

Ingurumen-kudeaketari dagokionez:

Kontratatik ingurumen-kudeaketako sisteman zehaztutako neurriak sistematikoki ezarriko ditu, zerbitzuaren inpaktuak murrizteko, batez ere ur- eta energia-kontsumoari, hondakinak murrizteari eta elikagaiak alferrik ez galtzeari eta horiek ondo kudeatzeari dagokienez.

Espezifikoki hondakinei dagokienez, sukaldeko langileak kontratistaren mendekoak diren kasuetan, enpresak zerbitzua prestatzean sortutako hondakinak modu egokian kudeatu beharko ditu, indarrean dauden legeen arabera bilketa selektiboa maximizatuz. Adibidez: olio isurtzea cateringaren erantzukizuna izango da. Edo ikastetxeetan hondakinak bereizteari dagokionean, hondakin desberdinak banatzeko edukiontzia egon beharko dira (gutxienez, papera/kartoia; beira; plastikozko eta metalezkoa ontziak eta brikak; materia organikoa; erabilitako olioak eta gainontzekoa).

- > Behin zerbitzua amaituta, kontratatik edukiontzi egokietan banatu beharko ditu hondakinak, edo, dagokionean, baimendutako gestore baten bitartez kudeatu.


<sup>8</sup>Agirietan prestakuntza-planak aipatzen dira baina ez da zehazten horiek nori dauden zuzenduta.

- > Kontratatistak, sukaldeko langileak subrogatuta dituenen, hiru hilez behin, erabilitako landare-olio litroez eta birziklatzera eramandako landare-olio litroez informatuko dio Hezkuntza Sailari, lehenengoen kasuan erosketa-ziurtagirien bitartez eta bigarrenen kasuan baimendutako enpresa kudeatzailearen ziurtagirien bitartez.
- > Kontratatistak ingurumen-hobekuntzako plana aurkeztuko du urtero, kontratatutako zerbitzuaren ingurumen-hobekuntzako neurriak aztertzeko helburuz. Enpresak bere langileak dauden sukaldeetan sortutako hondakinen kantitate osoa aurkeztu beharko du. Kantitate hura kontratuari egokituko zaio kontratuak enpresaren negozio-bolumen osoan hartzen duen ehunekoaren neurrian. Halaber, ikastetxe bakoitzean sortutako hondakinen kopurua ere aurkeztuko du, modu selektiboan bildutako ehunekoa argituz. Sortutako hondakinen kantitatea, bada, haren murrizketa progresiboa eta bilketa selektiboaren hobekuntza deskribatzeko eta frogatzeko modu batean aurkeztuko da (pisua, bolumena...); baita ikasleei eta familiei komunikatzeko modu batean ere.
- > Ahal den neurrian, ontzi berrerabilgarriak erabiliko dituzte hondakinek eragindako ingurumen-inpaktua minimizatzen.
- > Kontratatistaren etengabeko hobekuntza: I+G+B, prozesuak, prozedurak, kontrolak eta baliozkotze sistemak. Etengabeko hobekuntzaren filosofiarekin bat, kontratatistak prozesuak, prozedurak, kontrolak, produktuen fitxa teknikoak eta ebaluazio-sistemak hobetzera behartzen du bere burua; bere esperientzia partikularren eta zerbitzuaren ingurumen-hobekuntzen arabera (ur eta energia kontsumoa murrizteko, hondakinak murrizteko eta elikagaiak alferrik ez galtzeko edo bilketa selektiboa hobetzeko).

#### Beste espezifikazio tekniko batzuk:

- > Kontratatistak honako hauek bermatu beharko ditu: ontziteriaren garbiketa, sukaldeko eta jantokiko altzarien, ekipoen eta instalazioen garbiketa eta erabilera ona (fabrikatzailearen argibideen arabera), garbiketa- eta desinfekzio-produktu kimikoen eta suntsikorren hornikuntza; eta sortutako hondakinak ikastetxeak edo udal agintariek ezarritako osasun-eta ingurumen-arauen arabera garraiatzea, bai horiek nora eraman behar diren eta bai ordutegiari eta hustuketa-sistemei dagokienez, 9. puntuan ezarritakoaren arabera.

Ikus dezakegunez, atal hau asko hobe daiteke; izan ere, oso generikoa da eta benetako eduki gutxi du, ez baititu zehazten ez ingurumen-preskripzio teknikoak eta ez egikaritze-fasean horiek betetzen ari direla egiaztatzen metodoz ere.



Kalitate baldintzak alde batera uzten zituzten espezifikazio tekniko batzuetatik abiatu gara, adin-tarte bakoitzerako gramak, sasoiko produktuen artikulazioa eta menu bereziak aipatzeaz aparte. Hobekuntza txikia artikulatu da, zenbait ingurumen-ardura baitaude, baina jarraipen-mekanismoen artikulazio eskasak eta zenbait ingurumen-espezifikazio tekniken formulazioak erakusten digute ez dela benetako hobekuntzarik egon 2016ko agiriekin alderatuta.

## HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Asteko edo hileko maiztasunei dagokienez, hobetzeko hainbat proposamen egin daitezke, hala nola maiztasunen programazioa berrebaluatzea, menuen programazioen hobekuntza-proposamen batean oinarrituta, maiztasuna handitu edo txikiagotu behar diren elikagai-taldeak zehaztuz; jarraipen-bisitak programatzea; edo ikastetxean bertan prestakuntza-saioak ezartzea.

Zentzu horretan, eskolako menuen programazioa hobetzeko proposamena egin dezakegu, dieta editerraneoaren bereizgarri diren sasoiko eta gertuko elikagai freskoak sustatzeko eta eskaintzen diren fruta eta barazkien % 45 behintzat sasoikoak eta gertukoak direla bermatzeko. Halaber, eskaintako elikagaien % x gutxienez ekologikoak izatea ezar dezakegu, eta ehuneko hori pixkanaka handitu dezakegu ekoizpen ekologikora bideratutako hektareen kopuruak eta Autonomia Erkidegoko edo Estatuko eragile ekologikoen kopuruak gora egiten duten heinean.

Era berean, nutrizio-mailan, animalia-proteina murriztea sustatzen denez, ultraprozesatuak, frijituak eta azukretuak murriztea ere sustatu beharko litzateke. Debeku hura espezifikazio tekniko gisa edota egikaritzeko baldintza berezi gisa adieraz dezakegu, produktu horien erabilera zigortuz. Gainera, plater prestatuen eta/edo postre azukretsuen gehienezko maiztasuna mugatuko duten espezifikazio teknikoak sar daitezke; izan ere produktu horiek kendu eta nabarmen murriztu behar ditugu fruta, fruta-mazedonia, fruta erre, fruta-konpota eta antzeko produktu gehiago sartzeko. Halaber, elikagai-talde desberdinen kalitatea eta aniztasuna sustatu beharko litzateke, batez ere zerealen kasuan, zereal integralen eskaintza hobesteko.

Prestakuntza mailan, lizitatzailleek jangelari lotutako hezkuntza-proiektu bat aurkeztea lehenetsi beharko litzateke elikadura osasungarria ingurumen- eta gizarte-iraunkortasunaren ikuspegitik lantzeko. Proiektuak erabiliko duen metodologia eta ikasturtean zehar egingo diren jarduerak (hiruhileko bakoitzeko) zehaztu ditzake: eskualdeko ekoizleei edo jangela hornitzen duten horiei bisitak; jarduerak eskolako ortuan; sukaldaritza tailerrak; elikadura ohitura osasungarriak sustatzeko tailerrak; sukaldeko langileen eta familien ezagutza sustatzeko jarduerak; higiene-ohiturak, hala nola eskuak edo hortzak garbitzea; autonomia sustatzen duten jarduerak, hala nola mahaia jartzea eta jasotzea eta hondakinak bereiztea eta murriztea; eta abar.

Nolanahi ere, prestakuntza ez litzateke enpresen eskuetan utzi behar; aitzitik, Administrazioak elikadura osasungarri eta jasangarriari buruzko hausnarketa sustatuko duen curriculum pedagogikoa bermatu beharko luke; ez soilik ikasleen artean, baizik eta hezkuntza-komunitate osoan. Izan ere, funtsezkotzat har daiteke, kontratuko baldintza gisa, enpresek langileen (iraunkorrek eta aldi baterakoak) aldizkako prestakuntza plan bat izatea, nutrizioko adituak eta sukaldeko langileak hartzen dituen eta elikadura jasangarriaren printzipioak, sukaldaritza osasungarriko, ekologikoko eta sasoiko teknikak eta abar landuko dituen. Halaber, beharrezkoa da begirale-hezitzaileak eta jangelaren eremuaz kanpoko beste eragile batzuk trebatzea, hala nola ekoizleak, auzoko dendariak edo jatetxeko arduradunak.

## VII. ZIGORRAK ETA KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO KAUSAK

### 2015 eta 2016<sup>9</sup>:


Kontratuaren espezifikazio teknikoetan ez dago nutrizio-kalitateko, hondakinen kudeaketa iraunkorreko edo ingurumeneko baldintzarik. Hortaz, zerbitzuaren "kalitateari" dagozkion zigorrak ez dute zentzu handirik kontratuak berak ez baitu kalitate-baldintzarik exijitzen, adin-tarte bakoitzerako gramaje egokiaz eta sasoiko elikagaien taulaz aparte.

"Kalitateari" dagozkion zigorrak osasunean duten eraginaren eta administrazioari eragiten dioten kalte ekonomikoaren arabera dira. Zigor horiek 10.000 eta 100.000 euro artekoak dira, baina, kontratuaren prezioa kontuan hartzen badugu, kopuru horiek hutsalak dira, batez ere kontuan hartuta osasunerako arriskuak egon daitezkeela.

Beraz, oso kontratu laxoa da, ikuskapen aukerei eta egikaritzeko baldintzei zein PTAn kalitate-baldintza faltari dagokienez, eta baldintza horiek ez betetzea zigortzeko aukera gutxi uzten ditu.

### 2022:

Zenbait ingurumen-irizpideren espezifikazio teknikoak sartzeak ez du esan nahi horiek ez betetzea zigortuko denik. Izan ere, agirian ez da jasotzen ingurumen-alderdiak ez betetzearekin lotutako zigor egokirik. Halaber, agirietako batean ere ez dago ingurumen-jarraipeneko sistemarik. Askotan aipatu dugu hori, izan ere, ingurumen-jarraipeneko sistemarik ez izateak enpresaren eskuetan uzten du eskaintzan aipatutako edozein alderdi benetan betetzea. Kontratua suntsiarazteko kausen artean egikaritzeko baldintza bereziak ez betetzea aipatzen da (sei agiritan), ingurumen-kudeaketako sistemak izatearekin lotuta.



Ingurumen-irizpideen eta espezifikazio teknikoaren arloan zerbitzuaren kalitatea hobetzeko aukera eskaintzen duen hobekuntza txikia badago ere, ez da jarraipen egokirik artikulatzen agirian ezartzen diren ingurumen- eta kalitate-eskakizunak gauzatzeko.

### HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Ingurumen-jarraipeneko sistema hobeak eta horri lotutako zigorrak artikulatu beharko liriteke. Zigorrak handiak izan beharko liriteke irizpide horien garrantzia adierazteko. Egikaritzeko klausula berezien parte gisa, honako hau aipatu beharko litzateke: "kontratuko X baldintza betetzen ez badu, kontratistak [egun edo aste kopurua zehaztu]-ko epean zuzendu beharko du okerra. Kontratistak ez badu epe horretan okerra zuzentzen, botere adjudikatzailerak honako neurri hauek hartu ahal izango ditu: [zehaztu ordainaren murrizketa edo beste zigor batzuk kontratuaren arabera]."

<sup>9</sup>Karitularen 14. klausulan aipatzen da *zigorrak ezar daitezkeela SPKLTBren 212. artikuluan eta BABAren 38. eta 39. klausulan ezarritako betetze okerrengatik eta ez betetzeengatik.*

Era berean, Europa mailan dagoen anbizio klimatiko handia ikusita, hurrengo kontratuetan kontratuari dagozkion Berotegi Eftukoko Gasen (BEG) isurketen jarraipena sartu beharko litzatekeela uste dugu, ekoizpena, garraiatzea, kontsumoa eta elikagaien eliminazioa barne hartuz. Kontratuaren iraupenean zehar *[sei hilabetetik hamabira bitartean – kontratatzaileak zehaztu beharreko epea]*, kontratistak BEG isurketak neurtu beharko ditu kontratuaren esparruan, eta neurketa hura etorkizunean murrizteko oinarria izango da. Hori metodologia, *software* edo *online* tresna desberdinen bitartez egin dezake.

## VIII. MENUAK ETA MENU ALDAKETAK

### 2015-2016:

PTAren 9. klausulan ezartzen da enpresa kontratistak menuan egindako aldaketen berri eman beharko duela horiek onartu ahal izateko. 9.9 atalean adierazten den bezala, behin menuak onartuta ezin izango dira aldaketak egin EZINBESTEKO kausa batengatik ez bada (elikadura-alertak...) edo horiek behar bezala justifikatuta ez badaude eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak horiek baimentzen ez baditu. Halaber, ezin izango dira aldaketak egin ikastetxeen eskakizun partikularragatik edo esleipendunak bere menuak birprogramatu bitartez konpon daitezkeen arazoengatik, honako Agiri honen baldintzak betetzeko.

9.9 artikulua ezartzen da aldatutako platerak nutrizio-politika bete behar dutela eta jatorrizko produktuaren kalitate berekoak edo handiagokoak izan behar direla. Hala, elikagaien testuren edo sukaldaritza-tekniken aldaketak ere jakinarazi beharko dituzte. Kontratistak, bada, Excel txantilo baten bitartez jakinarazi beharko ditu aldaketa horiek ikasturtean zehar, horiek aplikatzeko eguna baino 96 ordu lehenago, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak horiek baimendu beharko ditu. Aldaketa ikastetxearen zuzendaritzari edo arduradunari ere jakinarazi beharko diote.

### 2022:

2015-2016ko lizitazioen kasuan bezala, PTAren 8. klausulan ezartzen da menuaren aldaketak jakinarazi beharko dituztela horiek onartu ahal izateko. 8.8 klausulan, bada, menua aldatzeko baldintzak azaltzen dira. Bestalde, C02/003/2022, C02/004/2022 eta C02/005/2022 espedienteen kasuan 7.8 klausula da hori zehazten duena (okerra da, haren edukia 8.8 klausularen lekuan aurkitzen baita). Nolanahi ere menuaren aldaketa EZINBESTEKO kausa batengatik izan behar da edo aldaketak behar bezala justifikatu eta Hezkuntza Sailak baimendu behar ditu. Era berean, aldaketak ezin izango dira egin ikastetxeen eskakizun partikularragatik edo esleipendunak bere menuak birprogramatu bitartez konpon daitezkeen arazoengatik.

Kalitateari dagokionez, aldatutako platerak nutrizio-politika bete behar dute eta jatorrizko produktuaren kalitate berekoak edo handiagokoak izan behar dira. Elikagaien testuren edo sukaldaritza-tekniken aldaketak ere jakinarazi beharko dituzte, 2-3 urteko adin-tartean izan ezik, horrek hurrek elikagaiak har ditzaten erraz baitezake. Kontratistak, bada, Excel txantilo baten bitartez jakinarazi beharko ditu aldaketa horiek ikasturtean zehar, horiek aplikatzeko eguna baino 96 ordu lehenago. Hezkuntza Sailak 48 ordu izango ditu erantzuteko, eta, aldaketak baimentzekotan, Ikastetxearen Zuzendaritzari aplikazio data baino 24 ordu lehenago komunikatuko dio.

### HOBETZEKO PROPOSAMENAK

Puntu honetan, disposizioa hobe daitekeela uste dugu. Menuak elikadura-alerten kasuan besterik ezin direla aldatu ezartzen duenez, komenigarria izango litzateke ikastetxeekin harreman handiagoa ahalbidetuko lukeen klausularen bat sartzea, menuak onartu ahal izateko.

# BIBLIOGRAFIA

- > Adquisiciones sociales — Una guía para considerar aspectos sociales en las contrataciones públicas — 2. edizioa 2021/C 237/01 (OJ C, C/237, 18.06.2021, 1. orr., CELEX: [https://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/?uri=CELEX:52021XC0618\(01\)](https://eur-lex.europa.eu/legal-content/EN/TXT/?uri=CELEX:52021XC0618(01)))
- > 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, Espainiako ordenamendu juridikoan Europako Parlamentuko eta Batzordeko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Direktibak (2014ko otsailaren 26a) txertatzen dituena. **Estatuko Aldizkari Ofiziala**, 272. zkia, 2017ko azaroaren 9koa. BOE-A-2017-12902. <https://www.boe.es/eli/es/l/2017/11/08/9/con>
- > 17/2011 Legea, uztailaren bostekoa, elikadura segurtasunari eta nutrizioari buruzkoa. **Estatuko Aldizkari Ofiziala**, 160. zkia, 2011ko uztailaren 6koa. BOE-A-2011-11604. <https://www.boe.es/eli/es/l/2011/07/05/17/con>
- > Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2014/24/EB Direktiba, 2014ko otsailaren 26koa, kontratazio publikoari buruzkoa eta 2004/18/EB Direktiba indargabetzen duena. **Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala**, 94. zkia., 2014ko martxoaren 28koa. DOUE-L-2014-80598. <https://www.boe.es/doue/2014/094/L00065-00242.pdf>
- > **ICLEI- Iraunkortasunaren aldeko Tokiko Gobernuak**. EB osoan jangela publikoetan gutxieneko arau batzuk ezartzeko manifestua. 2022ko urria. [https://buybetterfood.eu/sites/default/files/media/images/documents/Manifest\\_Spanish.PDF](https://buybetterfood.eu/sites/default/files/media/images/documents/Manifest_Spanish.PDF)
- > Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2018/848 Erregelamendua (EE) , 2018ko maiatzaren 30ekoa, ekoizpen ekologikoari eta produktu ekologikoen etiketazeari buruzkoa eta Batzordearen 834/2007 Erregelamendua (EE) indargabetzen duena. **Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala**, 150. zkia., 2018ko ekainaren 14koa. DOUE-L-2018-80995. <https://www.boe.es/doue/2018/150/L00001-00092.pdf>
- > Batzordearen 589/2008 Erregelamendua (EE), 2008ko ekainaren 23koa, Batzordearen 1234/2007 Erregelamendua (EE) aplikatzeko disposizioak ezartzen dituena arrautzen merkaturatze-arauen inguruan. **Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala**, 163. zkia., 2008 ekainaren 24koa. DOUE-L-2008-81133. <https://www.boe.es/doue/2008/163/L00006-00023.pdf>
- > <https://www.lamoncloa.gob.es/consejodeministros/resumenes/paginas/2022/070622-rp-cministros.aspx> (2023ko martxoaren 24an kontsultatua)
- > Elikagaiak alferrik galtzeari buruzko Lege-Proiektua [https://www.mapa.gob.es/es/prensa/anteproyectoleydesperdicio\\_tcm30-620834.pdf](https://www.mapa.gob.es/es/prensa/anteproyectoleydesperdicio_tcm30-620834.pdf)
- > <https://sede.dgt.gob.es/es/vehiculos/distintivo-ambiental/> (2023ko martxoaren 24an kontsultatua)

# GLOSARIOA

**Lizitazio-agiria:** Lizitazio agiria lizitatuko den proiektu edo erosketa baten xehetasunak eta espezifikazioak deskribatzen dituen dokumentua da. Hark hornitzaile edo kontratista izan daitezkeen horiei proiektuaren baldintza espezifikoei buruzko informazioa emateko helburua du, hala nola lan motari, espezifikazio teknikoari, kontratuaren terminoari, entregatzeko epeari eta beste baldintza batzuei buruzkoa. Lizitazio-agiriak eroslearen itxaropenei buruzko informazio zehatza ematen du eta eskaintzak ebaluatzeko erabiliko dituzten irizpideak ezartzen ditu.

**Sorta:** Sorta lizitatuko den proiektu edo erosketaren zati bat da. Lizitazio-agiriko sorta bakoitzak baldintza desberdinak izan ditzake, hala nola egin beharreko lanaren deskribapen zehatza, espezifikazio teknikoak, kontratuaren terminoak, entregatzeko epeak eta esleitutako aurrekontua. Proiektua sortatan banatzeak lehiatzeko aukera ematen die hornitzaile espezializatuei, sorta bat edo batzuk eskuratzeko, haien gaitasunaren eta esperientziaren arabera. Gainera, banaketa horrek proposamenen ebaluazioa errazten lagundu dezake; izan ere, eskaintzak sorta bakoitzean duten merituen arabera alderatzeko eta hautatzeko aukera ematen du.

**BABA (Baldintza Administratibo Berezien Agiria):** Lizitatuzaileek lizitazioan parte hartu ahal izateko bete behar dituzten baldintza administratiboak eta juridikoak ezartzen dituen dokumentua da. BABAk eskaintzak aurkezteko prozedurei, dokumentazioa entregatzeko epeari, lizitatuzaileek aurkeztu beharreko bermei, eskaintzak ebaluatzeko erabiliko diren irizpideei eta abarri buruzko informazioa eman ohi du.

BABAn lizitatuzaileek bete beharreko arauak eta baldintzak ere ezartzen dira, hala nola kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionalaren akreditazioa, exijitutako bermeak aurkeztea, eskaintzak aurkezteko modua, eta abar.

**PTA (Preskripzio Teknikoen Agiria):** Lizitatzen ari diren ondasun eta zerbitzuek bete behar dituzten espezifikazio teknikoak ezartzen dituen dokumentua da. Zehaztasunez deskribatzen ditu lizitatzen diren ondasunek eta zerbitzuek izan behar dituzten ezaugarri teknikoak. Adibidez, ekipamendu informatikoak erosteko lizitazio baten kasuan, PTAk ordenagailuen ezaugarri teknikoak zehaztu ditzake, hala nola prozesagailua, RAM memoria, memoria orokorra, eta abar. PTAk zehatz adierazten die lizitatuzaileei zer bilatzen den eta nolakoak izan behar diren eskaintako ondasunak eta zerbitzuak. Halaber, lizitatuzaileek PTAn ezarritako baldintza teknikoak betetzen dituztela egiaztatzeke erabiltzen dute lizitazioaren ebaluatzaileek ere.